Iadix ARROSAGARAI
2 Résidence Lavigerie
Rue Mal Juin
64100 BAYONNE

Baionatik, Urtarrilaren 6an

Jauna,

euskaldun berria naiz eta euskara ikasten ari. Duela zonbeit denbora lotu naiz hikatzko tratamendu delakoari. Aditz forma hori frango erabilia da ipar Euskal Herrian eta zinez beharreskoa "hemengo" euskararen mintzatzeko. Gainera Gau-eskoletako partaide naiz eta interesgarria iruditu zait forma horien irakastea.

Ez dut uste euskara batuan ezer erabaki izan denik eta nere burahausteei arrapostu bat emanen duzula ustez ausartu naiz zuri idaztera.

Ene arazo nagusia hau da:
adibidez "dute" formarentzat bi posibilitate ba dira
eolo "ditek", eolo "die". Eta horrela kasu frango
(luketek / lukeie - gaitiztek / gatie ---).

Jakin nahi nuke beraz zer den bien arteko ezberdintasuna eta nola esplika liteke 'die' horren osakuntza.

Zure arrapostuaren beha nagoen, aintzinetik milesker,

[signature]